

SESSION 2023

**CAPES
CONCOURS EXTERNE
ET CAFEP**

SECTION : LANGUES RÉGIONALES

BASQUE

**ÉPREUVE ÉCRITE DISCIPLINAIRE APPLIQUÉE PORTANT SUR
LE BASQUE**

Durée : 6 heures

L'usage de tout ouvrage de référence, de tout dictionnaire et de tout matériel électronique (y compris la calculatrice) est rigoureusement interdit.

Il appartient au candidat de vérifier qu'il a reçu un sujet complet et correspondant à l'épreuve à laquelle il se présente.

Si vous repérez ce qui vous semble être une erreur d'énoncé, vous devez le signaler très lisiblement sur votre copie, en proposer la correction et poursuivre l'épreuve en conséquence. De même, si cela vous conduit à formuler une ou plusieurs hypothèses, vous devez la (ou les) mentionner explicitement.

NB : Conformément au principe d'anonymat, votre copie ne doit comporter aucun signe distinctif, tel que nom, signature, origine, etc. Si le travail qui vous est demandé consiste notamment en la rédaction d'un projet ou d'une note, vous devrez impérativement vous abstenir de la signer ou de l'identifier. Le fait de rendre une copie blanche est éliminatoire.

Tournez la page S.V.P.

A

INFORMATION AUX CANDIDATS

Vous trouverez ci-après les codes nécessaires vous permettant de compléter les rubriques figurant en en-tête de votre copie.

Ces codes doivent être reportés sur chacune des copies que vous remettrez.

▪ **Concours externe du CAPES de l'enseignement public :**

Concours	Section/option	Epreuve	Matière
E B E	0 4 4 0 E	1 0 3	9 3 4 9

▪ **Concours externe du CAFEP/CAPES de l'enseignement privé :**

Concours	Section/option	Epreuve	Matière
E B F	0 4 4 0 E	1 0 3	9 3 4 9

Vous développerez, en français, un projet de séquence d'enseignement de la langue basque selon le contexte et les consignes détaillés ci-dessous :

Contexte :

Axe culturel : « Représentation de soi et rapport à autrui ».

Classe : 1^{ère} générale et technologique.

Conditions d'enseignement : section bilingue.

Niveau attendu à la fin du lycée : au moins le niveau B2 dans toutes les activités langagières et C1 dans plusieurs d'entre elles.

Consignes :

1. Proposez une analyse critique de chacun des documents constituant le dossier.
2. Sélectionnez quatre documents dont obligatoirement les documents 2 et 3. Mettez en relation ces quatre documents et précisez leur intérêt pour la séquence.
3. Exposez les objectifs communicationnels, linguistiques, culturels, éducatifs de la séquence. Précisez l'exploitation de chacun des quatre documents conservés au sein d'une ou plusieurs séances.
4. Décrivez et analysez les faits de langue soulignés dans les documents 2 et 3, puis explicitez leur mise en œuvre au sein de la séquence d'enseignement envisagée.

Liste des documents constituant le dossier :

- Document 1 : Xabier Lete, *Ni naiz*, 1974.
- Document 2 : Antton Luku, *La Haine*. In *Botoiletan*, 1998, Maiatz.
- Document 3 : Itxaro Borda, *Luzaz berant oheratu naiz*. In *100% Basque*, 2001, Susa.
- Document 4 : Ramon Saizarbitoria, *Eugenia Aranjuezen ezagutu nuen*. In *Rossettiren obsesioa*, 2000, Erein.
- Document 5 : Photo *Selfie*. <https://pxhere.com/fr/photo/121556>.
- Document 6 : Anjel Erro, *Izan benetakoa*, 2022ko irailak 18, *Berria*.

Document 1 :

Ni naiz

Ni naiz
erreka zikinen iturri garbiak
aurkitu nahi dituen poeta tristea.
Ni naiz
kaleetan zehar neguko eguzkitan
lanera dijoan gizon bakartia.
Ni naiz
lorerik gabe gelditzen ari den
ardaska lehorra,
ni naiz
pasio zahar guztiak kiskali nahi dituen
bihotz iheskorra.

Ez zaidazu galdetu gauza ilun guztien arrazoi gordeaz,
nora ote dijoan denbora aldakorrak daraman bidea.

Ni naiz
burrukaren erdian ilunpetan etsita
amur ematen duen pizti beldurtia.
Ni naiz ezerezetik ihes
munduaren erdian
ezin aurkitutako amets urrutia.
Ni naiz irrifar bakoitzean
gaztetasun hondarrak galtzen dituen,
ni naiz itsasoko haizeak
gogor astintzen dituen lainñoen negarra.

Ez zaidazu galdetu...

Ni naiz
beste asko bezala neguko eguzkitan
hotzak hiltzen dagoen gizon bakartia.
Ni naiz hostorik gabe
gelditzen ari den ardaska lehorra,
ni naiz pasio zahar guztiak
kiskali nahi dituen bihotz iheskorra.

Ez zaidazu galdetu...

Xabier Lete, *Ni naiz*, 1974.

Document 2 :

La Haine

Nik haurtzaro zaila ukan dut eta tipidanik herra hazi da ene baitan. Tipitik beharbada sobera erraten dut, herri ñimiño batean hazia izan bainaiz eta adineko lagunik ez nuen hastiatzeko. Baina bigarren mailara joan orduko, lagunik ez bainuen, itsusia nintzelakotz, edo ez dakit zergatik, baina insekuritate orroitzapenak ditut Donapaleuko kolegio hartaz. Klaseetan haatik ontsa, neska ederren so trufariaz kanpo *pantalon pied de poule* batzuk nituelakotz.

Baina pix'egitera joateko hasten zen lazadura. Hor *no mans land* bat iragan behar zen eta balonen altxatzeko prefaren gibeletik gaixtagin bandak atera zitezkeen batere potretik gabe, kokotzak gorrotoak makurturik. Gero, atzeman izan eta, negoziatzera saiatzen zen, baina ardura gizaki klase horrek argumentoak ez baitzituen behatzen, kondenatuak ginen beti: klaseetara berantarekin joatera, zarta baten biltzera eta holakoetara. Urka-bulur-ihizi horiek andanan zebiltzan, baina ene oroitean, orai hogeita hamar urte berantago, Iholdiko kankaila batek du ene herra guzia kristalisatzen. Lapina erraten zioten lagunek. Eman zizkidan erauzaldien artetik gogoan daukat oraino justiziaren konzientzia zuela. Egin zidan auzi honen finezia lekuko:

Heldu dira lapina eta haren lagun bat, haunditu eta, antzara martxanta izan nahi zuela oroitzen naiz, markatu ninduen gustu hark.

Palmipedazaleak:

— Lapina! Honek erran dik pitoa hizela.

Eta hantaldia. Simple zen. Nik egin ahala azantz gutirekin nigar egiten nuen eta bere irudimen haundia baliatuz hostokadari segida bat atzeman zion Bugs Bunnyk:

— He! errak, jitean, karrean lapina deitu omen nuk.

Eta bigarren beharrondoko uharra. Ez nintzen haren autobus berean, baina nola ez bainintzen haren gelan ere, konpentsatzen zuen. La Fontaine eta lagunek kondatu dute hau nik baino hobeki. Horiak haur istorioak dira. Ahanzten dira. Segur naiz lapinak, bizi den mirarien erresuman ahantzi dituela, normala da, baina eni iduritzen zait gure etxe ondoetara bizitzera jin baladi ihiziko permisa har nezakeela.

Urte haietan pixa guti egin dut. Eta ziko guti ere, pixasturua beterik ez baita aise eta *pied de poule* pantalona gainetik piesago.

Antton Luku, *Botoiletan*, 1998, Maiatz.

Document 3 :

Luzaz berant oheratu naiz

Oheratu baino lehen, eri artean bihikatu etxe-gasna xerra fin baten irenstea, ogi poxi batez lagundurik, ohitura sakratua bilakatua zitzaidan. Goizeko edozein tenoretan. Non-nahitik itzultzean. Eta aldi oroz egiaztatzen zen gasnaren mirakulua, bilkuran zehar irudiz lasai ihardukitzearen saria **bide** zen, kristautentzat, herstura eta dolore frankoren lehia zerua zen manera simple eta errebesean. Itxaropen bat. Muga hel eta gaindi ezina. Lehia saindua. Pentsatzean berean, berregituratze ideologikoak aktibaraziz bihotza uxkail zezakeena. Sariarena alderantziz ere irakurtzen ahal zen bistan dena: astoa aitzinarazten zuen zaldalea izan zitekeen. Kontsolatzen nintzen, neurri batean, bi zangotakoak salbu, astoak abere maitagarriak zirela sinetsiz.

Gasnaren jabetasun psikologikoak bazuen oinarri sozio-kultural indartsua. Urre zuria trumilka ekoizten zen Euskal Herrian. Ikusten ziren, autoko faroen menpean, gaueko horma haberoxienetan, gasna sal-markak %100 BASQUE moldatzen gintuela deiadarkatzen zuten afixak. Beste gasnategi handiak espazio publizitarioak erosten zituen, *Basque de Caractère* omen zen gasnaren goraiatzeko, mesfidanta, biolentoa eta naturak goastatu produktua zela alegia, euskaldunak garen bezala. Azken hilabeteetan ohartu nintzen harriturik bazela ardi gasna mota bat *Qui Parle Basque*, molekuletan benetako taraka-taraka mintzaira hegaldaraziz. Nola deklinatzen zen gasna izugarri horren nortasun agiria? Europako sanotasun neurriei egokitzen zena? Frantziako konstituzioaren bigarren artikuluz zer erran? Zirudienez, euskaraduntasuna ukatzen zitzaigun garaiotan, merkatuaren sigi-saga zirristatsuen artetik gasnak zekarren gure izatearen hondar zigilu zilegia.

Horixe ohorea! Sakoneko egoera baten erakusle propioa! Normalean, irakurle, zuhaurk frogatu ahal izan duzunez, basque hitzaren ahoskatzeak bi ondorio baditu: lehena, irriño trufaria, gorakoia, lurra larruari sobera lotua daukanaren ahalkearen ikurra; bigarrena aldiz haserre gorria, minoritate —beti kanpotik etorria!— ekile baten bekaizkeria, izpiritu **hertsikeria**, **burugabekeria**, **bortizkeria**, **atzerakoikeria** etengabe salatzearen. Bi jarrera horien erdian, planeta honetako kideen gisa "jendeki" bizitzerik ez geneukala argi zegoen, edozein ordutan estereotipo finkoei moldatzea eskatzen zitzaigulako: artzain moduko basa ona edo goi mailako terrorista trebea. Korronte nahasiek ahazmen osoaren eta gaztigurik karioenaren arteko uretan itoarazten gintuzten. Gasna ote zen gure salbatze eremu bakarra jadanik?

Itxaro Borda, 100% Basque, 2001, Susa.

Document 4 :

Eugenia Aranjuezen ezagutu nuen

Eugenia Aranjuezen ezagutu nuen. Kultura Ministerioak lau hizkuntzetako poeten antologia –horrela zuen izena, *Poetas de las cuatro lenguas*– antolatze bilerara deituta joana nintzen Madrilera, eta bidaldian Sedanorekin egokitu nintzenez, Aranjuezera txango bat egiteko profitatu genuen, ez berak eta ez nik ez baikenuen ezagutzen.

Luze generaman pasieran, eta, nekeak jota, antzokiaren inguruko kafetegi batean esertzea erabaki genuen. Mahai guztiak zeuden hartuta. Sedanok, ordea, bere kofradiako emakume bat begiztatu zuen [Sedano psikiatra da] –gero Eugenia zela jakingo nuen– beste batekin eserita, eta inguratu egin zitzairen beren ondoan lekua hartzeko eragozpenik ba ote zuten galdetzeko.

Sedanok bere laguna aurkeztu zidan, eta lagunak Eugenia guri. Ez nuen, ordea, lehen aldian izena gogoan hartu, aurkezpenetan urduri egoten bainaiz, burua mila gauzatan galduta eta eskuko izerdiaz kezkatuta batez ere. Eseri bezain pronto, Eugeniak –oraindik Eugenia zenik ez nekiela– gu biotako inori zuzenean hitz egin gabe, "euskaldunak, beraz" esan zuen: "O sea, que vascos".

Nik baietz erantzun nion, Sedano isilik geratu zen, eta lagunak presati, "zibilizatuak, ordea" erantzun zuen: "Al menos éste". Eta kokotsetik hartzen zuelarik: "Es un cielo".

Orduan Eugenia so geratu zitzaidan, zerbait esango ote nuen zain, eta nik, begiradak estututa, ni ere euskaldun zibilizatua nintzela aitortu behar izan nion. Nire adierazpen horren ondoren, Sedano eta Eugeniaren laguna beren arteko ezagunez hitz egiten hasi ziren; edo larrutzen, hobeto esan. Gaiztoa zirudien emakumeak, eta aipatzen zuen izen bakoitzari diagnostiko etiketa jartzen zion. Norbaitez histerikoa zela esan zuen; ongi dut gogoan, Floraren katuarena entzuten nuen lehendabiziko aldia baitzen: "Goza, pero no está satisfecha; como la gata de Flora, que cuando se la meten grita, y cuando se la sacan llora".

Maltzurra zela –"eres un bicho"– egin zion errieta Eugeniak, eta nik, esate aldera, Sedano ere gaiztoa zela, ziur asko psikiatra guztiak hala zirela esan nion. Gero, isilik geratu ginen beste biek beren gauzez jarraitzen zuten bitartean. Sedanok, lotsa arrastorik gabe, "hutsune kuantikoa" ulertu ahal izateko Félix Guattari ezinbestekoa zela esan zuen, nahiz eta askotan, goizeko ordu txikietan, edanda zegoela, ez hari eta ez Deleuze-ri ere ez ziela tutik ulertzen hamaika aldiz aitortu zidan. Emakumeak, berriz, hitzetik hortzera zerabilen "jouissance" hitza, behar bezala ahoskatzeko arazo nabarmenak zituen arren.

- Pozten naiz –esan zuen Eugeniak.

Ez nintzen konturatu zertaz ari zen, eta aurpegian galdera ikurra irakurri zidan, antza.

- Euskaldun zibilizatua zarelako.

Eta isilik geratu zen berriro. Esan beharra dut ez naizela munduan zehar euskaldun jatorrarena eginez ibili ohi diren horietakoa, baina batzuetan zaila da jakiten zenbateraino edo noraino erreprimitu behar duen batek bere izaera zenbaiti atsegin gertatu ahal izateko. Batzuetan, euskalduntasuna gauza izugarriekin lotzen den heinean, irudipena dut euskaldun topikoarekin nekez lot litekeen ezaugarririk hutsalena ere erreprimitzeko joera izan ohi dudala gustagarri izateko desioz; eta errazkeriaz ere bai, pentsatzen dut. Baina frustrazioa dakarkit joera horrek. Beraz, "euskal arazoa" kostatzen ahala kostatzen saihestea erabaki nuen. Hitz egin

beharrez, marrubiak bezalako ezpainak zituela esan nion. Egia zen: marrubiak ziruditen, limoi urez bustita, distiratsu.

Ramon Saizarbitoria, *Rossettiren obsesioa*, 2000, Erein.

Document 5 :

Selfie



<https://pxhere.com/fr/photo/121556>

Document 6 :

Izan benetakoa

Egiaztatu dut eta hala da, notizian esan bezala, *Edertasun faltsua* izeneko Instagram kontua itxi dute. Ezinen ditut, beraz, nazioarteko goi mailako modelo eta aktoreak *photoshop* eta makillajearen artifiziorik gabe, bere horretan, ikusi, delako orrialde horrek erakusten omen zituen moduan. Edertasuna, askotan ahazten zaigu, artifizioa da berez. Sare sozialek kontrakoa pentsarazi nahi badigute ere. Geuk ere geure buruari maiz iruzurra sakatu nahi badiogu ere, sarean zabaltzen ditugun argazkikoak garela sinetsita, besteei zuzendutako gezurrak irentsita guk ere. Kate horretan denok batera gogorki loturik gaude. Baina gatibua nork libratuko?

Benetakoa, zaren bezalakoa, izateko aholkua alferrik izaten da. Zaila behintzat, bai, naturaltasuna ere antzezten den zerbait izaten delako. Horregatik, kontzeptu hauei buelta nola eman nahi dien, jakin-mina dut famatzen hasi den *BeReal* sare soziala nola dabilen. Beste batzuen azaluskeriaren aurrean honek kontrakoa bilatzen omen du. Ustekabean eskatzen dizu zauden zaudenean argazki bat publikatzeko berehala, aurretik prestatu gabea, munduari saldu nahi diogun bizitza xarmangarria gezurtatuko duenik. Jakin-mina dut honakoa ere apaltasun norgehiagoka nola bihurtzen den.

Anjel Erro, *Izan benetakoa*, 2022ko irailak 18, *Berria* egunkaria.